Monsieur l'abbé

Guétharia, uztailaren 27a

Jaun buruzagia,

Herria kazetaren irakurtzaile segitu bat naiz eta ohartua naiz badirela jende ainitz zerbait gisako detaila eta chehetasun galde egiten zaituztena

Beraz heldu naiz ene aldi ni ere zure jakintasunetan, argitzerat.

Eskualdun kantuak ditut guziz maite eta hortako bildu ditut men arrapatzen ahal diren liburu guziak: Kantuz, errepikan eta charramela

Liburu horiek badituzte berrehun g kantuz goiti. Alere badire kantu batzuek nihundik izaiten ahal ez

ditutanak; ora zoin diren.

1°/ Marquisaren alaba interesatua
Marinelearekin zen amoratua....

2°/ Michel zuen izena deitura Larralde
Bakarik bizi izena andrerikan gabe...
(drame de St Pée-sur-Nivelle 1.806)

3°/ Ubna pertsu berriak nik orai paratu
X Amar manamenduak nola gobernatu...

4°/ (Azken judizioko kantuak)
Aliendoarin lehen da biziko
Igande egunian zen
Templo zaintrian egon dua naiz
Zermo eder bat aditzen
Jesusen laga ~~preziosnak~~ preziosuak
Astera ~~noa~~ noa kantatzen
Zeruko aita lagun zira zu
Intimentua argitzen.

5°/ Mendi gaineko Piarrech ttiki
Lotsarik gabe zitzaion jaiki
Ixhil zaite hor ez mintza gaizki...

6°/ Buenos Aires etan
Pasatu ditut hogoi eta zembait urthe
Neure bihotza ez da mintzatu
Uonat ethorri bitarte.

7°/ Kantatzerat niazu zurekin batean
Parkamendu galdetuz umilki astean
Orai nahi tut eman zuen konpainian
Zembait bertsu berri estaien gainean.
(Esporen Kantua)

Kantu horkien airea eta lehen biziko koblia ditut kantari ehahor batzueri ikasiak, bainan kantu osorik ez nezake nihun atzeman.

Arrazoin hortako naiz zu buruz biratu pentsatuz beharbada artikulu bat ager araziz Herria

kazetan, sugerta litakela irakurtzailetan norbeit, kantu horiek ezagutzen ohituenak.

Nere letra huntan akabatzen dut, barkamendu galde eginez neure hausartziaz, aintzinetik milesker erraiten zaitut eta on-harkitzu, Jauna, nere errespetuzko agurik beroenak.

J. Barbourre